

# «Irlanda 'askatua', imitatu behar ez dugun eredua»

Orain dela pare bat hilabete Sinn Feinek Dublínen egindako kongresuak inoiz baino oihartzun haundiagoa jaso zuen komunikabideetan. Bileraren ardatza ez zen nolana hiko: 64 urte legebiltzarretik kanpo eman ondoren, parte hartzearen aldeko erabakia onartu behar zuten Irlandako izkin guztietatik iritsitako «sinn feiner»ek. Euskal Herriatik ere ordezkari talde batek Dublinerunzko bidea hartu zuen Eireko nazio askatasunaren aldeko mugimenduaren osasuna «in situ» aztertu nahian. Hara abiatu ziren euskaldun horietariko bat Jose Luis Alvarez Enparanza «Txillardegi» dugu, gure artean aurkezpenik behar ez duena. Aspalditik Eireko arazoa hurbildik segitu duen lagun honengana jo du PUNTO Y HORAK kugresuan gertaturikoaren berri zuzenean jaso ahal izateko.



## M. Urkia

**N**olako giroa zegoen kongresuaren inguruan? Segurtasun neurri zehatzak zeudela irakurri dugu...

—Bai, Sinn Feinek berak harturiko izugarritzko segurtasun neurriak... Pentsatu behar duzue jende asko bildu zela orotara, mila edo mila eta bostehun lagun. Beraz, aretoa zein taberna jendez gainezka zeuden. Probokazio edo eraso baten beldurra zuten antolatzaileek. Horregatik, sartzarakoan, katxeo gogorrak egiten zituzten... batzutan bi edo hiru aldiz. Armaz sartzea oso zaila zen.

—Legebiltzarrean parte hartzea ala ez gairik garrantzitsuena zen, ezta?

—Garrantzitsuena baino ia gai bakarra esan genezake. Aspaldidanik zekarten arrastaka arazo hori... baina, kontuz, nahiko garbi utzi behar da Dublingo parlamentuaz ari

zirela zeren eta Belfast zein Londreskoetan parte hartzea planteiatu ere ez bait da egiten.

—Eta Irlanda 'askatua' sortu zenetik parte hartu gabe egonik, hots, 64 urte legebiltzarretik kanpo eman ondoren, joatearen aldeko proposamena garaitu zen. Zergatik aldaketa hori?

—Sinn Feinek oso boto gutxi jaso zuten duela azpimarratzekoa da. Orotara, %2a edo. Are gehiago, leku txiroenetan, langabezi eta emigrazio gogorrenak jasaten dituzten herrietan, alderdiak laguntza ederra jasoko zuela pentsa zitekeen, besteak beste halako lekuetan oraindik ere gaikoari eutsi ohi diotelako. Ke ba! Hor %1a edo besterik ez dute ateratzen. Indarrrik gehiena Dublin inguruan daukate 'sinn feiner'ek eta, hala ere, %3a ez dute gaintitzen. Beraz, azken 64 urteotan zehar parlamentuarekiko jarrera bera erakutsi ondoren, ezertxo ere aurreratzen ez zela ikusirik, zera

esan dute: politika errealean murgil gaitzen, egunero burruka horretan lana, abortoa... ea jendeak laguntza eskaintzen digun. Hor ba dago arrisku bat, jakina, sistemaren menpe gelditzearena...

—Eta horren jende gutxi izanik,

---

”Legebiltzarrean parte hartzeko operazioa IRAk berak erabaki du. Beraz, zati-keta balitz, jende gutxiren arteko izango delakoan nago”

---

Sinn Fein ez al da unibertsitario edo intelektual alderdi bilakatu?

—Ez, ez... ke ba. Kongresuan oso jende herrikoia ikusten zen... ez dut

uste unibertsitario taldeztat jo daitekeenik...

—Legebiltzarrerera joango direla aginduz, nolako emaitzak espero dituzte hauteskundeetan?

—Gutxi, oso gutxi. Horiek ez dute 'boom' haundirik espero. Gutxienez, bi eta, gehienez, sei ordezkari ateratzea espero dute.

—Alde batetik, ez dirudi kontrapartida haundirik dagoenik, epe laburrean behintzat, eta, bestalde, erabaki honek barne zatiketa sor zezakeela ba zekiten. Zehazkiago, parte hartzearen aldeko erabakia onartuta, **Ruairi O'Braigh** eta beste batzuek kongresutik irten ziren alderidi berri bat muntatzeko asmatan. Hala ere, aurrera egin dute. Zergatik?

—Bueno, operazio hau IRAk berak mantutu du. Bertan esan zigutenez, eztabaida luzea izan ondoren, IRAkoek partizipazioa errekomentatzea erabaki zuten aho batez. Kontutan hartu behar dugu oso gauza iherarkikoa dela. Sarritan esaten da IRA Sinn Feinen beso armatua dela, baina alderantziz da, hots, Sinn Fein IRAren beso politikoa da. Beraz, Sinn Feinek ez du erabakia hartu IRAren eritziaurka. Bestalde, militante historiko gehienak hirurogei urtetik gorakoak, 'provisionala' antolatuta zutenak... **Jerry Adam**ekin ikusi ditugu, hots, partizipazioaren alde. Izan ere, zatiketak ez du Britania Haundiko komunikabideek aldarrikatzen duten garrantzia edukiko eta, era berean, ez da Sinn Feinekoek ikusarazi nahi duten bezain txikia izango. Dena dela, zatiketa gorpuzten baldin bada, gutxiaren artekoa izango delakoan gaude.

—IRA bezalako armada indartsua sortzeko gai den mugimendu batek nola izan dezakeen horren boto gutxi ezin dugu ulertu...

—... Bueno, burruka armatua aurrera eramane zutenek, IRAkoak ere (**De Valera** eta besteak), halako batean onartu zuten 'independentzia', Ulsterreko sei konterri ingeles menpe gelditzen baziren ere. Giza oinarririk gabe gelditu zen IRA. Iparraldean ba zeukan betebeharra baina hegoaldean? Azkenik, gobernu irlandarra ba zegoen eta, are gehiago, burruka armatuan ibilitakoak agintariak ziren. Beraz, jendeak ez zuen ikusten halako alderdi erradikal baten beharrik. Bestalde, Sinn Fein beti izan da nazio askatasunaren aldeko mugimendua eta 'sinn feiner'ek ez zuten pentsatu halako egoera zuhurtza zitekeenik.

—Eire 'askatua'ren garapena nola ikusten duzu?

—Egoera oso dramatiko da eta, nere ustez, Irlanda da imitatu behar ez dugun eredu. Halako burruka herroikoa aurrera eramane ondoren, ikaragarriko desastrea jaso dute eta, nik dakidanez, nazio askatasunaren aldeko burruketan kasu bakarra da...

—Zergatik?

—Ingelesak oso azkarrak izan dira beti. Ezertxo ere konpondu ezin duen estatu fantasma sortu zuten. Industria eta biztanle gehiena biltzen zituzten eremuak haien menpe mantenduz, bestea 'askatu' zuten. Hego Irlanda askoz zabalagoa izan arren populazioaren heren bat ingeles menpeko sei konterrietan bizi da. Bestalde, Eire guztiz arrokatsua da eta, ondorioz, nekazaritzarako ere ez da oso egokia. Beraz, jenderik gabeko eremu txiroenak besterik ez zituzten ingeles 'askatu'. Ekonomikoki 'bluff' bat izan da Hego Irlanda. Esate baterako, independentzia egunetik gaur arte, Irlandako bi gazteetatik bat, gutxienez, Irlandatik kanpora lan bila joan beharrean aurkitu da. Eta ez dira edonora joan, jakina, Britania Haundira baizik. Honek edozerk baino hobeto adierazten du Eire 'askatua'ren erabateko porrota. Baina aipaturiko porrot hori ez da arlo ekonomikoan bakarrik gertatu...

—Segi, segi...

—Ez, esan nahi nuen intelektualek ere alde egin behar izan dutela... 1925. urtetik gerra bukatu arteko epe horretan... **Steinbeck, Joyce**... ikaragarriko oskurantismoa Eliza jaun eta jabe izan bait da, sekulako kontrol ideologiko zuelarik, hemen **Francoren** garain bezalaxe...

—Horixe da aipatu nahi genizun beste gaia: Eireko gizartearengan Eliza katolikoak duen eragina.

—Ikaragarria da. Elizak esaten duena hori da azkenengo hitza. Elizaren aurkako erabakiak hartzeko beldurra dute. Burura datozkigu Gerraurreko Nafarroa, zenbait giro jeltkide... edo gaur egungo Polonia. Aita Santuak abortoa kondenatuz gero... ba ez dago zer egiterik. Hain zuzen, lehen esan dizuet gai bakarrek kongresua izan zela baina, egia esan, zeharka izan arren, beste zenbait gai aztertu zuten ere, besteak beste, abortoa. Onartu zen, gutxi gora behera, emakumeak bere gorputzaz nahi duena egiteko eskubidea duela, eskubide pertsonal bezala, baina abortoa giza fenomeno bezala? Ez dute inolaz ere nahi...! Elizaren erri-



”Ingelesak, oso azkarrak, jenderik gabeko eremu txiroenak besterik ez zituzten askatu. Ekonomikoki 'fluff' bat izan da Hego Irlanda”

ziak pisu haundia du, bai. Oso herri katoliko, apostoliko eta erromanoa da eta seguruasko horregatik daude dauden bezala...

—Gaia aldatuz, dirudienez, gaelikoa kinka larrian dago, ezta? Kongresuan nolako agerpena izan zuen irlandarren jatorrizko hizkuntzak?

—Aurten, bigarren aldiz historia osoan zehar, ponentzia guzti guztiak elebitan aurkeztu dituzte. Haien ikuspegiatik aurrerapausu garrantzitsua izan da baina, egia esan, hizkuntzaren egoera orokorra negargarria da. Ez dago esan behar kongresuko hizlarien artean %95ak ingelesez egin zuenik. **Jerry Adamasek** eta besteek, beti ingelesez, gauza ximpleenetan ere

—Asko eztabaida genezake hortaz baina, nere ustez, irlandarrek ez dute behin ere hizkuntzaren auzia seiotzat hartu. Hartu dute hemengo jeltkideek bezala, folkloreak beste parte bat izango bailitzan, baina ez nazioaren ardatz bezala. Beste leku guztietan bai, hizkuntza eta abertzaletasuna batuta agertu dira... Finlandia, Txekoslovakia, Israel, Tanzania bera... askatu diren herriek hizkuntza aurrera atera dute... Eire izan ezik.

—Zure ustez, Irlandako nazio askatasunaren aldeko burruka garai-penaren bidetik abiatzen al da?

—Bertako lagun abertzale ezkertiari batek Irlandako subiranotasuna aipatzen duenean herriari berari ahalmen

'independiente' baten legebiltzarrean hartuko dute parte. Iruñea edo Gasteizkoek ez dute Dublingoarekin zerikusirik. Bestalde, Sinn Feinekoek ez dute oinarri soziologiko haundirik. Hemen, ordea, Hego Euskal Herrian behintzat, gehienak abertzaleak gara edo, gutxienez, ez gara sukurtsalistas. Beraz, egoera ezberdina da eta extrapolatzea guztiz absurdoa da. Bakoitzak, egoera sakonki aztertuta,

”Eliza katolikoak esaten duena azkenengo hitza da. Hori ikusirik, Gerraurreko Nafarroa, zenbait giro jeltkide edo gaur egungo Polonia burura datozkit”


bere irtenbidea bilatu beharko dut.

—Amaitu beharko dugu...

—Aukera aprobezatu, Gasteizko legebiltzarrean parte hartzeaz zer pentsatzen duan azaldu nahi dizuet... Azken urteotan ikaragarriko saltsa muntatu dute eta orain 'impasse'an daude, ezta? Ba, nere ustez, guk ez dugu krisialdia gainditzeko laguntzera joan behar, HBek proposatzen duen bezala gauza iraultzeko ez bada. Eta hala ere... eszeptizismo

”Nere ustez, irlandarrek ez dute behin ere hizkuntzaren auzia seirotzat hartu. Hemengo jeltkideek bezala hartu dute, folkloreak beste parte bat izango bailitzan”

haundiz. **Francoren** garaian fronte abertzalea sortzea posiblea zen eta ni horren aldekoa nintzen. Horrela, **Franco** erori orduko talde abertzale guztiak, ETA barne, elkartuta egongo ginatke. Baina momentu honetan? Hor dagoen kaka ikusita? Haien berak atera daitezkeen estualditik. Orain dela gutxi, hiru hilabetetan argitu behar ziren lau baldintza aipatu zituen **Tasio Erkizia**. Horrela balitz, konforme, besterik gabe. Bestela ez da joan behar... argi eta garbi.



Eskubian, Txillardegiren senadorea, ondoren Juan Okiñena, HBren Mahai Nazionalakoa, Sinn Feinek egindako azken kongresuan euskal ordezkariek.

agurrak eta gisa hortako esakerak ez dute itxurarik gordetzen. Kultur arloko zenbait gai eztabaidatzerakoan hasi ginen zertxobait entzuten gaelikoz. Zehazkiago, gaeliko hutsez egin zuen gazte batek, 'probokazio' bezala edo pentsatzen dut.

—Abertzalerik sutuenek ere ez badute gaelikoz egiten... Zer dela eta halako egoera?

—Tristea da baina azken hamarkadetan zabarkeri hutsean utzi dute hizkuntza. Ez da betidanik horrela izan. Hasierako abertzaleek argi eta garbi esaten zuten: nahiz eta gaelikoz hitzeggin, argintari ingelesak baldin badiugu, Irlanda ez da behin ere libre izango eta, era berean, inbasoerak alde eginak ere, ingelesez hitzegiten badugu. Mende hasieran izugarriko mugimendua izan zen gaelikoaren alde baina gero...

—Zergatik?

ekonomikoa ere bueltatu behar zaiola esan nahi du. Azkenik, independentzia eta sozialismoa gauza bera dira. Nere ustez ere, hori da garaitzea. Sentidu horretan goitik behera frakasatu dute irlandarrek... lurralde batasuna egiteke dago; arlo ekonomikoa, hondamen hutsa; hizkuntza, gainbehera; lehenengo sua itzali da eta galdu dute dinamika. Esperantza iparraldean bakarrik errefuxiatzen da. Benetan, Eire 'askatua' porrot baten historiartzat jo genezake.

—Euskal Herria eta Eireren arteko antzekotasunak aurkitzeko nahiak sarriegi harrapatzen gaitu...

—Bai, hortxe dituzue EE eta PNV 'Ikusten? Hor ere, azkenik, legebiltzarrean parte hartzea erabaki dute' esaka. Ezin da gauza horren sinpleki aurkeztu. Hor 64 urte parte hartu gabe eman dituzte. Gainera, komatxo artean nahi bada ere, baina Estatu